



IRUÑA, 2-B ☎ 94-4473645 - DEUSTU - BILBAO 48014

## GELAKO ORDEZKARIEN AUKERAKETA PROZEDURA

### 2016/2017 IKASTURTEA

#### **Helburua**

Aurtengo kurtsoan, aurreko urteko delegatuarekin batera, delegatu bezala jardungo den pertsona bat aukeratzea. Beraz, asmoa da gela bakoitzeko bi ordezkari izatea, eta urtean behin bat berritzea.

#### **Noiz**

Maila ezberdinak aurkezteko ikasturtearen hasierako bileran, aurreko urteko delegatua izango da aukeraketa prozedura eramango duena eta bilera horretan azalpenak emango dituen.

#### **Gelako ordezkariaren lana:**

- Gelako familien artean komunikazio bide eraginkor bat sortzea.
- Guraso Elkartearekin eta beste delegatuekin koordinatzea.
- Familien parte-hartzea sustatzea.

#### **Praktikan zer suposatzen du**

- Bi urtez hautatua izatea.
- Guraso Elkarteak deitzen dituen oizko 3 koordinazio bileretara joatea beste delegatuekin batera.
- Gelako gurasoen partetik dauden kexak edo proposamenak jaso eta bideratu.
- Guraso Elkartetik zabaltzen diren informazioak gelako beste gurasoei zabaldu.

#### **Nor izan daiteke hautatua**

- Gelako edozein guraso izan daiteke hautagaia: ama edo aita
- Euskeren ezagutza ez da derrigirrezkoa.
- Komenigarria da Guraso Elkarteko beste estruktura batzuetan parte-hartzen ez duen jendea inplikatzeko eta aurretik delegatua izan ez dena.

### Lan egiteko modua

- Bi delegatuen artean aukeratuko dute ordezkapen eta koordinazio modua.
- Gelako beste gurasoekin beraiek aukeratutako koordinazio modua ezarriko dute.

### Hautaketa prozedura:

- 2015/2016 kurtsuan ordezkaria izan zena ikasturtea hasierako bilera aukeraketa prozedura azalduko du. Aurretik irakaslearekin hitzartuko du noiz aurkeztu.
- Prozedura azaltzen denean ordezkaria nor izan nahi duen galdetuko da.
- Hautagai bat baino gehiago balego proposatuko zaie elkar adosteko. Ados ez badaude bozketa egingo da.
- Inolako hautagairik ez balego zozketa proposatuko da: gelan dauden ume kopuru bezain papertxo egingo dira eta baten batek zenbaki bat aterako du (bada ez bada aurretik prestatuta izango da).
- Ezin izango da behartu norbait ordezkaria izatera ez baldin badu onartzen.
- Hautagaien izenak Guraso Elkarteari pasatu beharko zaio helbide honen bitartez [partehartzea@deustukoikastola.org](mailto:partehartzea@deustukoikastola.org)
- Bilera aurretik hautagaiak izan daitezkeen pertsonekin hitzegitea komeniko litzateke.

### Datuak biltzeko orria

- Helburua: gurasoen baimena lortzea gelako delegatuak kontaktatzeko edo Guraso Elkarteak zuzenean informazioa bidaltzeko.
- Datu pertsonalen bilketa eta tratamenduak, Guraso Elkarteak bere lanerako erabiliko ditu eta ez zaizkie sekula hirugarren pertsonari emango.
- Datuak emateko papera bilera hasieran banatzea eta azaltzea komeniko litzateke guraso guztiek ondo betetzeko denbora izan dezaten.
- Zein informazio mota eskatuko da: helbide elektronikoa eta sinadura.
- Datuak eman nahi ez duenak ez du zertan eman behar
- Datuak emateko modua: pasatuko den orrian norberak datuak ematea eta sinatzea
- Behin datuak izanda, kalkulu edo testu horri baten jasoko dira eta [partehartzea@deustukoikastola.org](mailto:partehartzea@deustukoikastola.org) bidaliko dira, eta sinadura paperak Guraso Elkarteko postontzian utziko dira.